

Gernika-Lumoko Udalan 2013ko -----(a)ren --an

BILDUTA

- GERNIKA-LUMOKO UDALA, bertoko Alkate-Udalburua den JOSE MARÍA GORROÑO ETXEBARRIETA JAUNAK ordezkaturia eta Udaleko Idazkaria den JON GOIKOETXEA ETXEBARRIA lagunduta.
- ASTRA GERNIKENTZAKO ELKARTEA Erregistroan izena emanda duena eta egoitza Gernika-Lumon; KIF zenbakia 695678017 eta egitate honetan JOHANA OLABARRIA UGARTE andreak ordezkaturia, erakunde horretako ordezkari legala den aldetik, 2012ko otsailaren 15ean burututako izendapena kontuan, eta Lagapen-hitzarmen honekin batera aurkezten den ziurtagiria horren frogaz izanik.

PARTE HARTZAILEAK

JOSE MARÍA GORROÑO ETXEBARRIETA JAUNA, NAN zenbakia 72.243.666-E duena, eta JON GOIKOETXEA ETXEBARRIA, NAN zenbakia 14.933.910-X duena, Gernika-Lumokoko Osoko Bilkuraren adostasunarekin, Udalaren izen eta ordezkaritzan, Alkate-Udalburu gisa.

JOHANA OLABARRIA UGARTE andrea, NAN zenbakia 72.455.461-X duena, ASTRA GERNIKENTZAKO ELKARTEAREN izen eta ordezkaritzan jarduten du, ASTRA GERNIKENTZAKO ELKARTEA 2005eko otsailaren 15ean izaniko bileran hartutako erabakia medio, lagapen-hitzarmen hau sinatzeko eskumena du.



Honako lankidetzta lagapen-hitzarmena sinatzeko ahalmena dutela kontuan hartuta,

ADIERAZI DUTE

LEHENENGOA.- 2005. urtean, Gernikako Gazte Asanbladak, kultur taldeek eta Gernika-Lumoko udalerriko hiritarrek, abandonatuta zeuden ASTRAko eraikina eta orubea errekerperatu zituzten. Lan komunitarioari esker, kultur kreaizorako eta herriarentzako zentro bilakatu zen.

BIGARRENA.- Geroago, eraikina okupatzen zuten taldeek emandako berriei esker eta herritarren presioagatik, Gernika-Lumoko Udalak eraikina erosi zuen 2006ko maiatzaren 10ean izaniko enkante publikoan. Horrez geroztik, eraikin horri esker, talde kultural berriak sortu ziren. Zentroa bilerak eta ekintza ugari egiteko erabili zen, Gernika-Lumoko udalerriko pertsona/talde/elkarte kulturelek bultzatutakoak. Horiek guztiek ASTRA GERNIKENTZAKO ELKARTEA osatu zuten.

HIRUGARRENA.- Udal gobernuak eraikinaren egoera aztertu ondoren eta bere egoera larria ikusita, Astran egiten ziren jarduerak etetea erabaki zen. 2008ko uztailean ASTRA GERNIKENTZAKO ELKARTEAK eta Udalak Astra hitzarmena sinatu zuten non Astra Proiektua onartu eta eraikinaren eraberritzea diseinatzeko 1 kilometroa parte-hartze prozesua adostu zen. 2011ko uztailean, Eusko Jaurlaritzako Sormen Lantegien programaren baitan, Gernika-Lumoko Udalak eraikina konpontzeko 1.5 miloi euroko diru-laguntza jaso zuen eta 2012ko uztailean lanak bukatu ziren.

LAUGARRENA.- 0 eta 1 kilometroan adostatuko kudeaketa eta finantzazio eredu 2012 udaberrian 2 kilometro prozesuan sakondu eta zehaztu da errealitate berrira egokitzeko. Astra kulturarako fabrika soziala dela, hau da, ondare publikoaren kudeaketan jendearen parte-hartze zuzena bultzatzen duen espazioa dela. Astrak kulturaren ikuspegi zabala landuko du, non pertsonen eta taldeen ahalmen sortzailea eta soziala dira bere oinarri eta helburu. Kulturaren ideia hau ekoizpen artistikoa, ekimen sozialak, pentsamendu kritikoa eta esfera publikoaren demokratizazioa bilatzen duten ideien eta ekintzen hedapena hartzen ditu. Kudeaketa eta finantzazio ereduaz, alde batetik pertsona edo talde bakoitzak bilatu beharko du Astran egingo dituen jarduerak finantziatzeko bideak eta, bestetik, baliabide materialetarako, espazioen mantenimendu orokorrerako jarduera komuniterako finantzazio eredu bat adostu da.

BOSTGARRENA.- Gernikako 204 liburuan. 1.110 liburukiaren 48 folioan, 8. inskripzioan ageri den





kulturalerako, eta helburu horretarako, lursailetan beharrezko azpiegiturak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, egin ditu.

SEIGARRENA.- 2008ko ASTRA GERNIKENTZAKO ELKARTEAK eta Udalaren arteko Astra eraikinaren hitzarmenaren 7. xedapenean azpimarratzen zenez, ASTRA proiektua aurrera eramateko lagapenaren baldintzak eta epeak xede horretarako administrazio dokumentu batean batuko zirela. (Hitzarmenaren 1. Eranskina)

ZAZPIGARRENA.- Aurretik aipatutakoaren gainean alde biek adostu dituzten erabakiak bideratzeko, lankidetzaz, funtzionamendu eta lagapen-hitzarmen hau izenpetzen dute eta

ERABAKI DUTE

LEHENENGOA.- XEDEA

Hau da lankidetzaz eta lagapen hitzarmen honen xedea:

- Gernika-Lumoko Udalak ASTRAko lursailetan udal jabetzako ekipamendu sozial eta kultural honen kudeaketa eta arduraz, ASTRA GERNIKENTZAKO ELKARTEARI lagatzea, 0, 1 eta 2 Km herritarren parte-hartze prozesuetan zehaztutakoaren arabera.
- ASTRA proiektua aurrera eramateko lagapenaren baldintzak eta epeak zehaztea.
- ASTRA GERNIKENTZAKO ELKARTEA eta Gernika-Lumoko Udalaren arteko lankidetzaren lan-ildoak, harremana eta funtzionamendua zehaztea.

BIGARRENA.- UDALAREN LAGAPEN BETEBEHARRAK

- Gernika-Lumoko Udalak ASTRA GERNIKENTZAKO ELKARTEARI uzten dio ASTRA Kulturarako Fabrika Sozialaren ustiaketa. Erabiltzaileek eta administrazioak eraikina eta proiektuarekiko erantzukizuna elkarbanatuko dute.



- Udal jabetzako ekipamendu sozial eta kultural honen kudeaketa eta ardurua ASTRA GERNIKENTZAKO ELKARTEAri lagatzen dio, 0-1-2 Km-etan herritarren parte-hartze prozesuetan zehaztutakoaren arabera. Lursail horrek ASTRA y Unceta eraikina bere osotasunean (beheko, lehenengo eta bigarren solairuak) eta trenbiderantza dagoen espazioa. (Hitzarmenaren 2. Eranskina).
- Bunkerrari dagokionez, ASTRA Gernikentzako Elkarteak Astrara datozen bisitariei bunkerra erakutsi ahal izateko giltzak izango ditu. Berau bisitatzea ez den bestelako jarduerarik egin gurako balitz, ASTRA GERNIKENTZAKO ELKARTEAK Udalari aldeztu aurretik jakinarazi beharko lioke.
- Lagapenak BOST URTERAKO iraupena izango du. Epe hori igarotakoan, luzapenak egin ahal izango dira urtez urte edo bi urtez. Hitzartutako epea amaitzean, eta bestelako adierazpenik egin ez bada, luzapena automatikoki burutuko da eta indarrean jarriko da, hitzarmenaren balorazio eta, kasua balitz, reformulazio bat egitearen aldera.
- Hitzarmen honetan bildutako akordioak apurtuko balira, edo beste edozein arazo sortuko balitz, ASTRA Batzordean aztertuko lirateke, beti ere hori konpontzeko asmoarekin eta ASTRAren kudeaketa herriko taldeen esku jarraitzeko asmoarekin.
- ASTRA Gernikentzako Elkarteak eskuratu edo lortutako baliabide materialak Koordinadoraren jabetzakoak izango dira. ASTRArako Udalak eskuratutako baliabide materialak Udal jabetzakoak izango dira.

HIRUGARRENA.- UDALAREN FUNTZIONAMENDU BETEBEHARRAK

- Gernika-Lumoko Udalak ASTRAko eraikinaren ohiko gastuak bere kontu hartzen ditu: ura, argia, berotze sistema, suaren kontrako sistema, igogailua, leku komun garbiketa, alarma eta telefono linea. (Hitzarmenaren 3. Eranskina).
- Gernika-Lumoko Udalak bere gain hartzen du eraikuntzaren aseguruaren kontratazioa eta ordainketa. Barruko jardueren aseguruaren kontratazioa eta ordainketa ASTRA Gernikentzako Elkarteari dagokio.
- Gernika-Lumoko Udalak eraikinaren mantentze orokorraren ardurua bere gain hartzen du eta eraikinean



desegoki baten ondorioz gerta litezkeen kalteen konponketa Astra Gernikentzako Elkartearen ardura izango dira.

LAUGARRENA.- UDALAK KOORDINADORAREKIN LANKIDETZA BETEBEHARRAK

- Udalaren eta ASTRA GERNIKENTZAKO ELKARTEAREN erantzukizun konpartitu hori gauzatzeko ASTRA Batzordeak martxan jarraituko du. ASTRA GERNIKENTZAKO ELKARTEAK aukeratutako bozeramaileez eta Udal Gobernuko ordezkariak eta talde politiko desberdinez eraturako batzordeak era iraunkorren funtzionatuko du, behar legal, azpiegiturazko zein administratiboei erantzuteko. Informazio trukeko, gardentasuna bermatzeko eta proiektuaren bilakaera eta jarraipena egiteko tresna konpartitua izango da. Gernika-Lumoko Udalak ASTRA Batzordean parte hartzeko konpromisoa hartzen du.
- Diru kontuak aurkeztu beharko ditu elkarteak eta urte amaierako batzarrean kontuak aurkeztu Astra Batzordean.
- Gutxienez urtean birritan batuko da Astra Batzordea.
- ASTRA Gernika-Lumon dauden beste kultur azpiegitura eta proiektuekiko osagarria denez, Gernika-Lumoko Udalaren eta bere ardurapean dauden erakundeen (bereziki Kultur Etxearen) proposamenak ASTRA eraikinean egiteko aukera izango dute. Proposamen hauek, beti ASTRA izaerarekin bat egin behar dute, hau da, ASTRAren izaera irekia, partehartzailea, prokomuna, askotarikoa... Udalak proposaturako ekimenak ASTRA batzordean edota egitarau lantaldean adostuko dira, bai zeintzuk gauzatu diren eta bai zeintzuk izango diren gauzatzeko baldintzak.

BOSGARRENA.- KOORDINADORAREN LAGAPEN BETEBEHARRAK.

- Lagapena gauzatu ondoren, eta erantzukizun konpartitu honen aurrean ASTRA 0, 1 eta 2 KM prozesu parte hartzaileetan adostutakoa eta hitzarmen honetan batzen diren konpromisoak beregain hartzen ditu. (Hitzarmenaren 4. Eranskina).
- Eraikina berriztatzea eta osatzea ahalbidetuko duten diru publikoak eta pribatuak lortzeko aktiboki laguntzea.



SEIGARRENA.- KOORDINADORAREN FUNTZIONAMENDU BETEBEHARRAK

- ASTRAn gauzatu beharreko ekintza guztien kudeaketa Koordinadoraren esku geratzen da: herri, eskualde, probintzi, nazio nahiz mundu mailakoak.
- ASTRA GERNIKENTZAKO ELKARTEAK bere gain hartzen du eguneroko eraikinaren eta gauzatzen diren ekimen eta jardueren mantenua, baita kultur jardueren gastuen kudeaketa ere.
- Koordinadorak, egunerokotasunean, zein gauzatzen diren jardueretan, behar diren segurtasun neurriak hartuko ditu. Neurri hauek partehartze prozezu bidez Koordinadoran adostuko dira.
- ASTRako auzolagunekin hartu-emanak izateko konpromisoa hartzen du Koordinadorak. Hartu-eman hauek, proiektuaren izaera azaldu eta ASTRA auzokideei zabalik dagoela erakusteko balioko dute. Helburua bizikidetzaren oparoen sortzea da: errespetuan oinarritutako harreman hurbila.

ZAZPIGARRENA.- KOORDINADORAK UDALAREKIN LANKIDETZA BETEBEHARRAK

- Otsailaren 27ko, Euskal Herriko ingurumena babesteko 3/1998 Lege orokorraren arabera, jardueraren lizentzia eskatu eta tramitatu egin beharko da egingo diren ekitaldientzako.
- Udalaren eta ASTRA GERNIKENTZAKO ELKARTEAREN erantzukizun konpartitua gauzatzeko ASTRA Batzordean parte hartzeko konpromisoa hartzen du Elkarteak. Informazio trukerako, gardentasuna bermatzeko eta proiektuaren bilakaera eta jarraipena egiteko tresna konpartitua izango da.
- ASTRA Batzordearako ordezkariak izendatu eta, aldaketarik balitz, Udalari horren berri emateko ardura. Koordinadoraren barne funtzionamendurako izendatutako ordezkarien izendapenak ere Udalari jakinaraztea.
- ASTRAREN ordutegia Astra Batzordearekin adostuko da.

ZORTZIGARRENA.- EBAZTEKO ARRAZOIAK.



Hitzarmen honetan bildutako akordioak apurtuko balira, edo beste edozein arazo sortuko balitz, ASTRA Batzordean aztertuko lirateke, beti ere hori konpontzeko asmoarekin eta ASTRAren kudeaketa herriko taldeen esku jarraitzeko asmoarekin.

Hori dela eta, izenpetzen dutenek laguntza osoa eskaini beharko dute dokumentu honetan ezarritako helburuak lortzeko.

Egoera konpondu ezean, parte biak aurreko egoerara bueltatuko dira. Horrez gain, beste parteari eta hirugarrenegoei egindako kalte eta galera guztien ordaina emango die egoera hori sortu duenak.

Eta ezarritakoari jarraituz eta onartuz, parte biek hitzarmena izenpetzen dute, ale bikoiztuan, idatzi honen buruan esandako tokian eta datan.

ATXIKITAKO DOKUMENTUAK

1. ERANSKINA: 2007ko Hitzarmena
2. ERANSKINA: Espazioen mapa
3. ERANSKINA: Ohiko gastuen zerrenda
4. ERANSKINA: 0-1-2 KMetan adostutakoa



